

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

216/2025 Foru Agindua, apirilaren 9koa. María López Vázquez en aldi baterako izendapena egitea, Laudioko Udaleko idazkari lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko, 2025eko apirilaren 8tik 14ra, titularra oporren baimena baliatzen ari delako, bai eta Gotzon Bareño Duñabeitiaren aldi baterako izendapena ere, 2025eko apirilaren 15etik 21era bitartean, egun guztiak barne

2025eko apirilaren 2ko sarrera data duen idazki baten bidez, Laudioko Udaleko alkateak eskatu zuen María López Vázquez en eta Gotzon Bareño Duñabeitiaren aldi baterako izendapena egitea, idazkari lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko, titularra oporretan egoteagatik. Lehenengoa, apirilaren 8tik 14ra bitartean, eta, bigarrena, apirilaren 15etik 21era bitartean, egun guztiak barne.

Indarrean dagoen ordenamendu juridikoak ahalbidetzen du aldi baterako izendapenak egitea, idazkari lanpostuan beharrezkoak diren ordezkapenak egiteko, Estaturako gaikuntza duten toki administrazioen funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 52. artikuluan jasotzen diren kasuetan.

Lehen aipatutako 128/2018 Errege Dekretuaren 52.4 artikuluan adierazten da ezen postuaren titularra aldi baterako ezintasunean edo oporregatik, norberaren gauzengatik edo beste arrazoi batzuegatik kanpoan dagoen kasuetan, toki erakundeko bertako funtzionario bat aldi baterako izendatu ahal izango dela hilabete baino gutxiagoko aldietarako, korporazioko lehendakariak proposaturik, autonomia erkidegoko araudiaren arabera.

5.000 biztanletik gorako toki korporazioetan, A1 azpitaleko karrerako funtzionario bat izan behar da betiere.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioen funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52.4 artikuluan xedatutakoari jarraitu zaio.

Kontuan hartu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 92 bis artikuluan xedatutakoa, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak (25. artikulua) idatzita utzi zuen moduan, non toki korporazioetan aldi baterako langileak izendatzeko eskumen eremua zehazten baita.

128/2018 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian agindutakoa betez eta Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 24. artikuluan (ALHAO, 36 zk., 2023ko martxoaren 27koa) jasotzen diren eskudantziak betez, eta nire eskumenekoak diren ahalmenez baliatuz eta haien indarrez, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. María López Vázquez en eta Gotzon Bareño Duñabeitiaren aldi baterako izendapena egitea, Laudioko Udaleko idazkari lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko, titularra oporretan dagoen bitartean. Lehenengoa, 2025eko apirilaren 8tik 14ra bitartean, eta, bigarrena, 2025eko apirilaren 15etik 21era bitartean, egun guztiak barne.

Bigarrena. Foru agindu hau jakinaraztea Laudioko Udalarari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari.

Hirugarrena. Jakinarazten zaizun foru agindu hau behin betikoa da administrazio bidean, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakezu zuzenean Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 9a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JAVIER GORBEÑA GARCÍA